


JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO WEB ORRIKO HIZKUNTZA ZERBITZUAK



Xabier Arauzo Uriarte

AURKIBIDEA

- 1. Sarrera**
- 2. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ekimenak**
- 3. Normalkuntza-planaren Dekretua**
- 4. Internet bidezko hizkuntza-zerbitzuak: dinamizatzaleei egindako enkargua eta web orriaren beharra**
 - 4.1 Bulego judizialeko formazio prozesua sustengatzeko oinarriak**
 - A** Kalitate taldeen metodologiaren eta filosofiaren inguruko prestakuntza
 - B** Herritarrengandik hurbil dagoen euskarazko hizkera juridikoko prestakuntza eman
 - C** Justizia Saileko web orrian hizkuntza zerbitzuak eskaini:
www.justizia.net
 - 4.2. Formazio prozesuaren hiru oinarrien elkarmenpekotasuna, eta formazio prozesu hori aurrera eramateko premisak**
 - 4.2.1.** Prestakuntzan izango dituen ondorioak
 - 4.2.2.** Prestakuntza mota hau aurrera eramateko beharrezkoak diren premisak
 - 4.3. Ondorioak**
- 5. Web orriko hizkuntza-zerbitzuak hedatu: euskararen erabilera sustatzetik, Justizia Administrazioko euskararen erreferentzia izatera**
- 6. Gure web orriko hizkuntza-zerbitzuak sortzeko iturriak**
 - 6.1. Kataluniako Generalitateko Justizia Saileko web orria**
 - 6.1.1.** Testuingurua
 - 6.1.2.** Generalitateko Justizia Saileko web orriko hizkuntza-zerbitzuak
 - 6.2. Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAPeko web orria**
- 7. Laguntza teknikoa**
- 8. web orriaren azterketa eta diseinua**
 - 8.1. Deskribapen orokorra**
 - 8.1.1.** Sortu diren tresnen azalpena
 - 8.1.2.** Atal bakoitzaren helburuak eta beharrianak
 - 8.1.3.** Informazioaren eguneratzea
 - 8.2. Datuen eredu logikoa**
 - 8.3. Pantaila bakoitzera sartuko den erabiltzaile-taldeen deskribapena**
 - 8.4. Pantaila edo modulu bakoitzaren deskribapena eta edukia**

8.4.1. Internet

- 8.4.1.1.** Esperientzia pilotuak
- 8.4.1.2.** Euskara batzordea
- 8.4.1.3.** Formularioak eta idazkiak
- 8.4.1.4.** Euskalduntzea eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapena
- 8.4.1.5.** Erakundearteko batzordea
- 8.4.1.6.** Hizkuntza-irizpideak
- 8.4.1.7.** Laguntza tresnak
- 8.4.1.8.** Esteka interesgarriak
- 8.4.1.9.** Berriak eta nobedadeak
- 8.4.1.10.** Menua
- 8.4.1.11.** Foroak, Estekak, FAQs, Albisteak, Inkestak

8.4.2. Intranet

- 8.4.2.1.** Euskara ikastaroak
- 8.4.2.2.** Hizkuntza eskakizunak
- 8.4.2.3.** HEZINET
- 8.4.2.4.** Foroak

8.4.3. Intranet mugatua

- 8.4.3.1.** Azkeneko eredu normalizatuak
- 8.4.3.2.** Unitate didaktikoak
- 8.4.3.3.** Foroak
- 8.4.3.4.** Maizen egindako galderak ikusi
- 8.4.3.5.** Berriak eta mezuak
- 8.4.3.6.** Agenda
- 8.4.3.7.** Proiektu-kideekin harremanetan jarri

8.4.4. Extranet

- 8.4.4.1.** Bake-epaitegietako aplikazioa eta dokumentuak


9. Hizkuntza Zerbitzuen web gunearen gaur egungo egoera

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO WEB ORRIKO HIZKUNTZA ZERBITZUAK

1. Sarrera

Orain arte, hizkuntza normalkuntzan urrats gutxi eman den arloa da Justizia Administrazioa, baina gainerako administrazioetan bezala, eginez doaz geldiro-geldiro. Justizia Administrazioak ez du urratsik egin euskararen normalizazioan laguntzeko eta, egin diren urratsak, Eusko Jaurlaritzaren ekimenak izan dira.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari dagokio Justizia Administrazioako normalkuntza-plana diseinatzea eta aurrera eramatea eta, hain zuzen ere, Sail horren menpe dagoen Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza du horren ardura. Ikus dezagun Sail horren organigrama:



Sail horretako organoen eta egitekoen egitura dekretu¹ bidez zehaztuta dago. Beharrezkoa da Dekretu horren barruan, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren egitekoak zein diren azaltzea, gerora aipatuko ditudan ekimenak hobeto ulertzeko. Hona hemen aipatu Dekretuaren

¹ 44/2002 Dekretua, otsailaren 12koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duena.

11. artikulua, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren egitekoak zehazten dituenak:

11. artikulua.– *Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.*

1.– Dekretu honetako 9. artikuluan oro har ematen zaizkion egitekoak aparte, honako hauek dagozkio Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari:

a) Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin, Justizia Auzitegi Nagusiarekin, organo judizialekin, fiskaltzekin, Justizia Ministerioarekin, Autonomia Erkidegoetako organo eskumendunekin eta Justiziarekin lotuta dauden Estatuko nahiz beste herrialde batzuetako gainerako instituzio eta erakundeekin, harreman egonkorra izatea eta koordinatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan destinatuta dauden epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialentzako prestakuntza-programak kudeatzea, kasuan kasuko instituzioekin izenpetutako hitzarmenak edota akordioak garatuz eta betez, eta arreta berezia jarritz Euskal Autonomia Erkidegoko berezko Zuzenbideari buruzko prestakuntzan.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Magistratu, Epaile eta Fiskalek egonkortasunez bertan jarraitzea errazten duten baldintzak ezartzen laguntzea.

d) Bake epaitegiez bereziki arduratzea, arlo horretako diru-laguntzen plana bideratuz eta kudeatuz, eta arlo horretan eskumena duten instituzioekiko harremanak koordinatuz.

e) Peritu, lekuko eta zinpekoen alorrean behar diren bitarteko eta baliabideak programatzea eta dauden beharren plangintza egitea, zuzen gauzatu eta betetzen direla arduratuz.

f) Zuzenbidezko ordenamenduko baliorik gorena Justizia dela zabaltzea herritarren artean.

g) Justizia Administrazioari buruzko azterlanak sustatzea eta antolatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Dokumentazio Judizialeko Zentroarekin eta Justiziako gainerako instituzio eta organoekin lankidetzan.

h) Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiari behar duen laguntza tekniko eta administratiboa ematea.

i) Justizia Administrazioaren antolaketaren modernizazioa bultzatzea, hiritarrei zerbitzua emateko lana arrazionalizatzeko helburuarekin.

j) Justizia Administrazioari dagokion Informatika Plana egitea, eta plan horren ondorioz dagozkion informatika-zerbitzuak ematea. Horretaz gain, planaren sustapen, jarraipen eta kontrola egin beharko du, eta baliabide informatikoak erabiliz, Justizia zerbitzu

moderno eta eraginkorra ematen laguntzen duten beste edozein funtzio, zehazki eman gabe egonda ere.

k) Hizkuntzaren normalkuntza bultzatzea, hizkera juridikoaren bateratzea eta euskara agirietan ezartzea garatuz; eta euskararen erabilera bultzatzea organo judizialetan eta fiskaltzetan.

l) Justizia Administrazioko langileen euskalduntze-alfabetatzea antolatu eta kudeatzea, arloko plan baten bitartez, eta langile horientzako Hizkuntza Normalizatzeko Plan berezitua garatu eta ezartzea.

m) Justizia Administrazioko langile ez transferituen (epaile eta magistratuak, fiskalak, epaileen idazkariak, abokatu eta prokuradoreak) euskalduntzeko programa eta hitzarmenak planifikatu eta kudeatzea.

n) Auzitegiko medikuntzaren modernizazioa bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoan, Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundeari laguntza eta lankidetzak emanez bere jardunak planifikatu eta gauzatzerakoan.

ñ) Eraentzako Antolapide Teknikoak zuzendu, antolatu eta gainbegiratzea, Sailburuordetzako beste zuzendaritzekin koordinatuz.

2. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ekimenak

Zeregin horiek betetzeko, hainbat ekimen antolatu ditu Zuzendaritza honek. Gaingiroki, garai bi bereizten dira, Eusko Jaurlaritzaren ekimenen azterketa eginez gero:

1. 2001 urtera arte
2. 2001 urtetik aurrera, Justizia Administrazioako normalkuntza neurriak finkatzen duen 117/2001 Dekretua² agertu ondoren.

2001 urtera arte, hiru arlo landu ziren bereziki. Batetik, Justizia Administrazioako langileen euskara-ikastaroak antolatu ziren. Bigarrenik, Justizia Administrazioan erabiltzen diren dokumentu judizialen euskarazko eredu normalizatuak sortzeari ekin zitzaion eta, horretarako, beren beregi sortu zen Euskara Batzordea³. Hirugarrenik, itzulpen sistema indartu egin zen: Bizkaian eta Gipuzkoan launa itzultzaile daude, eta Araban bat.

2001tik aurrera, oster, batetik aurreko aldiko arloak indartzen jarraitu dira. Esaterako:

- Transferituta ez dauden langileak: epaile, magistratu, idazkari judizial eta fiskalen kidegoetan 130 langilek eskatu zuten euskara ikastaroetan parte hartzea azkeneko ikasturtean.
- Transferitutako langileak: ofizial, laguntzaile eta agente judizialen kidegoetan 500 langile egon dira liberatuta –egun osoz edo egunero bi orduz– euskara ikasteko.

² 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituena.

³ Batzordeko kideak.-

Honako kide hauek osatzen dute Euskara Batzordea:

Epaile euskaldun bat

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi ordezkari

Bizkaiko Abokatuen Elkargoko bi kide

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kideak: azken boladan ez dute batzordean parte hartu, baina jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bi kide

Unean-unean zeregin horretarako kontratatuta dagoen itzulpen-enpresako bi ordezkari.

Justizia Administrazioako itzultzaile-interpretariak

Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak

Batzordearen koordinatzailea (hizkuntza normalkuntza teknikarietako bat)

Euskara Batzordea duela lau bat urte sortu zen epaitegietako sistema informatikoan txertatzen diren idatzereku judizialak euskaraz normalizatzeko.

Batzordearen lan-sistema.-

Jurisdikzioa pixkanaka maizen erabiltzen diren agiri judizialak aukeratu ondoren euskaratzera bidaltzen zaizkio zeregin horretarako eta deialdi publikoaren ondorioz hitzarmena egin zaion itzulpen-enpresari. Agiri horiek itzulita daudenean, batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, lehenengo bertsio horren gainean oharrak egin ditzaten. Ondoren, bilera egiten da agiri horiek behin betikotzat jotzeko eta epaitegietako sistema informatikoan txertatzen dira.

- Itzultzaileei itzulpengintzako ikastaro berezituak eman zaizkie: Trados itzulpen memoria, Prozedura Zibileko Lege Berria...

Bigarren aldi honetan, bestetik, Justizia Administrazioan hizkuntza normalkuntzan aurrerakada handia ekarri duen ekimen garrantzitsua sortu da: EAEko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen Dekretua onartu eta argitaratu da. Dekretu hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzaz sortu zen, EAEko gainerako administrazioetan dagoeneko onartu diren normalkuntza-planak kontuan hartuta Justizia Administrazioarako hizkuntza-plana sortzeko. Dekretu horren edukia aztertu aurretik, zehaztapen bi egin behar dira:

1. Dekretu horren eragin esparrua mugatua da, hau da, ez die eragiten EAEko Justizia Administrazioako langile guztiei. Hain zuzen, transferitutako langileei⁴ baino ez die eragiten: ofizial, laguntzaile eta agente judizialak.

Ez transferitutako langileentzat (epaile, fiskal eta idazkari judizialak), kasuan kasuko hitzarmenek zehazten dute nola jokatu edo zein eratako hizkuntza-normalkuntzako neurriak hartu:

- Epaileen kasuan, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko Hitzarmena dugu. 1999ko otsailaren 18an sinatu zen Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzahitzarmena, EAEko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeko. Hitzarmen honen helburuak dira karrera judizialeko kideek, kidegaiek eta bake-epaileek euskara ikas dezaten saiatzea, beren jardueran euskararen erabilera bultzatzea eta Justizian erabiltzen den euskara zabaltzen eta ontzen saiatzea.
 - Fiskalen eta idazkari judizialen kasuan, 1997ko maiatzean sinatu zen Justizia Administrazioako Ikasketa Juridikoen Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzahitzarmena dugu, EAEko Fiskal eta Idazkari Judizialen prestakuntza arautzen duena. Prestakuntza horren barruan, besteak beste, euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroen eskaintza egiten da hainbat ikastaro-mota antolatuz.
2. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak hizkuntza-normalkuntzako Dekretua 2001eko ekainean onartu eta argitaratu zuen, baina Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztu zuen dekretu horren kontra, eta Auzitegi Konstituzionalak, 2002ko urtarrilean, bertan behera utzi zuen euskalduntzeko plangintza behin-behinekoz. 2002ko ekainean, baina, urtarrilean hartutako erabakia berrikusi zuen Auzitegi Konstituzionalak, eta behin-behinean indarrik gabe utzi zuen Dekretua indarrean utzi du atzera ere. Hau da, berriz ere indarrean dago normalkuntza-plana. Dena dela, normalkuntza-plana aurrera eramateko martxan jarriko diren neurriak

⁴ Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak 1996ko otsailaren 16an lortutako akordioa onartzen duen martxoaren 26ko 60/1996 Dekretuaren bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura ziharduten langileak EAEko administrazioa pasatu ziren, otsailaren 16ko 249/1996 eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuetan adierazitako eran. Errege Dekretu horien bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoei eta auzitegiko medikuen kidegoari buruzko araudi organikoak onartu ziren hurrenez hurren.

Justizia Ministerioaren oniritzia jaso beharko dute, eta oniritzia egoera politikoaren arabera izango da neurri handi batean. Ikusiko dugu gaur egungo egoera politiko nahasian zer egiteko aukera dugun.

3. Normalkuntza-planaren Dekretua

Dekretu horretako neurriek hiru esparru arautzen dituzte. Honako hauek dira:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Dekretu honen helburua zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza normalkuntzarako neurriak arautzea hiru alorretan:

- Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen plantilletan eta lanpostuen zerrendetan hizkuntza-eskakizunak nola jarri arautzea.
- Plantilletan eta lanpostuen zerrendetan ezarritako hizkuntza-eskakizunak kontuan hartuta, euskarazko gaikuntza-ikastaroak nola antolatu arautzea⁵.
- Epaitegietako bulegoetan eta fiskaltzetan euskararen erabilera sustatzeko egin beharreko programak arautzea.

Dekretu horrek arautzen duen normalkuntza-planari buruz aholkuak jasotzeko eta nolabaiteko gidaritza jasotzeko, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kontratatu zuen, hain zuzen ere Elhuyar. Aholkularitza hori batez ere organo judizialean euskararen erabilera sustatzeari buruzkoa izan zen. Elhuyarrek Dekretuan euskararen erabilera sustatzeari buruzko neurrietan oinarritu zen proposamenak egiteko. Hauxe dakar Dekretuak euskararen erabilerari buruz:

VII. KAPITULUA

BULEGO JUDIZIALEAN ETA FISKALTZETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EGITASMOAK

18. artikulua.– Justizia-alorrean eskumena duen sailak euskara sustatzeko esperientzia pilotuak sustatuko ditu bulego judizialean, organo eta zerbitzu judizialean eta fiskaltzetan, baldin eta toki horietako egoera egokia bada esperientziok abian jartzeko.

19. artikulua.– Esperientzia horietan, gaitasuna duten eta prest dauden funtzionarioek eguneroko lana euskaraz egingo dute berariaz aukeratutako organoetako bulegoetan. Horretarako, hainbat baliabide eskainiko zaizkie: itzultzaile baten eta hizkuntza-trebatzaile

⁵ Hizkuntza Eskakizunen egiaztapena eta banakako ikaskuntza planen diseinua ere aipatzen dira.

baten laguntza, agiri normalizatuen eredu informatizatuak, laguntza informatikoa, osagarritzko euskara-ikastaroak eta euskarazko terminoen glosategi bat.

20. artikulua.– 1.– *Esperientzia pilotu horiek abian jarri aurretik, zein organotan ezarriko diren erabakiko da. Esperientzia abian jartzeko, hortaz, nahitaezkoa izango da organo judizial edo fiskaltza jakin horretan beren lanpostuko zereginak betetzeko adinako euskara-maila duten aski funtzionario egotea eta behar beste dotaziorik nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita izatea.*

2.– *Halaber, neurri egokiak ezarriko dira lana behar bezala banatzeko, erabilera-esperientzietan parte hartzen duten funtzionarioek lanpetuegi egon ez daitezen, hori zigortzea izango bailitzateke.*

3.– *Esperientzia abiarazteko eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak jartzeko, beharrezkoa izango da gobernu-organoren eskudunen onespena eta epailearen idazkarien, epaile edo magistratuen edo fiskalen adostasuna.*

Elhuyarrek bulego judizialetan euskararen erabilera areagotzeko esperientzia pilotuen proiektua garatu zuen. Aurreko kapitulu horretako eduki batzuk oso kontuan hartu zituen, gerora proposatu zuen erabilera-planaren metodologia zehazterako orduan: batetik, langileek gutxieneko euskara maila izan beharko dute esperientzia pilotuetan parte hartzeko (euskaldunak izatea beharrezkoa da), bestetik, langileek prest egon behar dute erabilera-planean parte hartzeko (borondatezkoa da) eta, hirugarrenik, hizkuntza-trebatzaile edo dinamizatzaileak egongo dira langileen kontsultei eta beharrei erantzuteko.

Baldintza horiek ikusita, Elhuyarrek enpresetako hobekuntza-taldearen metodologia erabiltzea proposatu zuen. Horixe da Elhuyarrek enpresetan erabiltzen duen metodologia. Funtsean, kalitate zirkuluen funtzionamendua proposatu zuen: langileak lantaldeetan bilduko dira, eta hobekuntza-taldearen metodologia erabilita, euren eguneroko prozesuak edo ekintzak nola egiten dituzten –euskaraz ala gaztelaniaz– diagnostikatzen dute. Gero, lehentasunez jotzat jotzen diren prozesuak (herritarrek/bezeroek parte hartzen badute, maiz egiten badira, errazak badira...) aukeratu, eta euskaraz egiteko ze pauso jarraitu behar den aztertzen dute. Azkenik, langileek eurek proposatutako konponbideak edo neurriak inplementatzen dira. Honelaxe azaldu zituen Elhuyarrek dinamizatzaileen eta langileen zereginak:

Dinamizatzaileak (koordinatzailea barne)

Dinamizatzaileek planean parte hartuko duten lan-taldeak gidatzeko ardura hartuko dute beren gain: taldeak dinamizatu, bilerak antolatu, emaitzak eta funtzionamendua kontrolatu, planaren partehartzaile guztien jarraipena egin, langileek behar dituzten prestakuntza-saioak prestatu eta eman, zalantza puntualak argitu eta planean parte hartzen dutenek idatzitako testuak zuzendu, eta gainera motibazioa eta aldeko

jarrerak bultzatzeko ekintzak bideratuko dituzte helburuak eskuratzeko behar den giroa sortzeko ahaleginak egingo dituzte. Ekintza eta jarduera hauek aurretiaz onartuko dituzte epaileek, magistratuek eta idazkari judizialek eta astero adostutako datetan gauzatuko dira eta ordu eta erdiz luzatuko dira. Horrezaz guztiaz gain, organoetako arduradunekin (Idazkari judizialekin, epaileekin eta magistratuekin) komunikazio kanala mantentzeaz arduratuko dira esperientzia pilotuetan bideratuko diren ekintzen berri izan, eta egokia ikusten dutenean eta beharrezkoa denean beren oniritzia eman diezaieten.

Langileak (Hobetze-taldeetan elkaturik)

Dinamizatzailleekin batera egingo diren saioetan borondatez parte hartuko dute eta helburuak zehazten laguntzeaz gainera, horiek lortzeko gauzatu beharreko ekintzak adostuko dituzte eta ekintza horiek aurrera eramaten ahaleginduko dira.

4. Internet bidezko hizkuntza-zerbitzuak: Dinamizatzaleei egindako enkargua eta web orriaren beharra

Normalkuntza-plana dekretu bidez onartu eta argitaratzearen ondorioz behinena hizkuntza-normalkuntzako teknikariak kontratatzea izan da. Dekretu horretan arautu ziren arloetako neurriak aurrera eramateko, hizkuntza-normalkuntzako teknikarien lana aurreikusten zen. Ni euskararen erabilera sustatzeko dinamizatzaleen taldean nago, Bizkaian. EAEn, guztira lau dinamizatzale gaude.

Batetik, euskararen erabilera sustatzeari buruz, dekretuan agertzen ziren neurriak martxan jartzeko eta, bestetik, Elhuyarrek proposatzen zuen lan metodologia erabiltzeko, zenbait baliabide behar-beharrezkoak zirela pentsatu genuen dinamizatzaleok. Guri bulego judizial batzuetan⁶ euskararen erabilera sustatzeko ardura eta enkargua eman ziguten. Enkargu hori betetzeko, zailtasun edo oztopo batzuk ikusi genituen: aukeratutako organoak sakabanatuta daude, etengabeko kontsulta zerbitzua eskaintzeko trabak daude, komunikabide egokirik ez dago organoen eta dinamizatzaleen artean... Oztopo horiek ikusita, baldintza edo eskaera batzuk egin genizkion gure Zuzendaritzari, guri egindako enkargua ondo beteko bagenuen. Baldintza edo eskakizun nagusia web orriaren beharra izan zen, nahiz eta eskakizun guztiak lotuta egon.

Ondoren agertzen dira orduan egindako eskakizunen atal nagusiak:

Euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuen jarduera planaren inguruko eskakizunak

3 atal nagusi ditu:

1. Bulego judizialeko formazio prozesua sustengatzeko oinarriak
2. Formazio prozesuaren hiru oinarrien elkarmenpekotasuna, eta formazio prozesu hori aurrera eramateko premisak
3. Ondorioa: jarduera planaren bideragarritasuna

⁶ Euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuak hurrengo baldintzak betetzen zituzten organo judizial batzuetan jarri dira martxan: organoa dagoen udalerriko edo eskualdeko euskararen egoera ona izan behar da; organoko langile gehienak euskaldunak izan behar dira; gutxieneko euskara maila izan behar dute langileek. Hauek dira Bizkaian aukeratutako organoak: Lekeitioko eta Ondarroako bake-epaitegiak, Arratiako eta Zamudioko bake-epaitegien elkarteak, Durangoko Epaitegia osorik, Bilboko 1 Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegia, Bilboko Instrukzioko 6 zk.ko Epaitegia, Bilboko Justizia Jauregi bietako Informazio Bulegoak eta Bisita Gidatuak (Buenos Aires eta Barroeta Aldamar), eta Auzitegi Nagusiko Zibil eta Zigor Sala.

4.1. Bulego judizialetak formazio prozesua sustengatzeko oinarriak

Elhuyarrek aipatzen dituen formazio saioak ez dira baliabide isolatuak, baizik eta lantaldeen dinamika osatzen duten osagaiak. Langileek euren hizkuntza ohiturak aldatzea, hau da, gaztelania erabiltzetik euskara erabiltzera pasatzea, ez da batere erraza, eta hori lortuko da baldin langileek era aktiboan parte hartzen badute proiektu honetan. Horrek esan nahi du helburuak zehazteko prozesuan (epe labur, ertain eta luzera) parte hartu behar dutela langileek.

Horregatik guztiagatik, formazio prozesua hiru zutabe garrantzitsu hauetan oinarrituko dugu:

- A- Kalitate taldeen metodologiaz eta filosofiaz formazioa eman
- B- Euskarazko hizkera juridikoaz formazioa eman. Hizkera hori herritarrengan al bait hurbilen egotea bultzatuko dugu
- C- **Justizia Saileko web orrian hizkuntza zerbitzuak eskaini: www.justizia.net (hizkuntza irizpideak, formulario judizialak, glosarioak, hiztegi juridikoak, langile bakoitzari egokitutako hizkuntzako formazioa...)**

Hala ere, argi esan behar da hiru zutabe horiek **ez direla beregainak** edo autonomoak. **Proiektu integratu** baten zati dira. Elkarrekin lotura zuzena duten zutabeak dira. Horietako batek huts eginez gero, proiektu osoa kolokan egongo litzateke, lortu nahi ditugun helburuak ez lirateke behar bezala beteko.

A- Kalitate taldeen metodologiaren eta filosofiaren inguruko prestakuntza.

Metodologiaren aldetik, uste dugu ez dugula zailtasun gehiegirik topatuko talde horiek gidatzean, izan ere, talde horietan erabiltzen diren metodologia eta helburuak oso ezagunak dira enpresetako kalitate-zirkuluetan eta euskara plana martxan jarri diren enpresa eta erakunde publikoetan. Lantalde horiek langilez osatutako talde txikiak dira. Langile horiek biltzen dira haien lanean agertzen diren arazoak identifikatzeko, aztertzeke eta konponbideak proposatzeko. Talde-laneko metodologia⁷ erabiltzen dute: etengabe hobetzea eta ebaluatzea. Gainera, langileek euren borondatez hartzen dute parte taldeotan, eta zuzendaritza taldearen laguntza dute.

Hauek dira, beraz, kalitate taldeak oinarritzen diren zutabeak:

- 1.- onartzea egunero prozesu jakin bat egiten duenak ezagutzen duela ondoen prozesu hori;
- 2.- errespetatzea norbanakoa (langilea) eta bere gaitasunak;
- 3.- indartzea langileen gaitasunak talde lanean jardunez;

⁷ Gu, batez ere, hiru lan hauek oinarritu gara:

- Robert S. Winter. *Manual del trabajo en equipo*. EHUko web orritik jaso: <http://www.sc.ehu.es/svwkalit/ManualTrabajoEquipo/manual1-c.html>
- Francisco Javier Palom Izquierdo. *Círculos de calidad*. Marcombo. 1987
- Kike Intxausti. *Metodología de equipos de mejora*. SAREKA, 1998

4.- langileen betebeharrekin zerikusia duten gaiak baino ez lantzea.

Hala, taldeek euskararen erabilera areagotzeko proposamenak egingo dituzte, egoera aztertuko dute, eurek egindako proposamenak jarriko dute martxan, arazoak konpontzeko teknikak erabiliz (Brainstorming edo ideia zaparrada, kausa-ondorio diagramak...), eta etengabeko hobekuntzako teknika erabiliz (arazoa definitu, arrazoiak aztertu, soluziobideak proposatu, martxan jarri, ebaluatu eta estandarizatu).

B- Herritarrengandik hurbil dagoen euskarazko hizkera juridikoko prestakuntza eman.

Hizkera juridikoaren ezaugarrietako bat da espezialdutako erabiltzaileek erabiltzen dutela, haien beharretara egokituta. Baina hizkera juridikoa badu ezaugarri bat gainerako teknolektoek ez dutena: hizkera juridikoa ez da sortu espezialistek baino ez erabiltzeko, erabiltzaileen artean badaude hizkera juridikoan espezialistak ez direnak eta zertan izan ez dutenak: **herritarrak**.

Administrazio moderno eta eraginkorrak herritarrak izan behar ditu beti gogoan. Horregatik, Administrazioak hizkera argia erabili behar du, herritarrengandik hurbil dagoena, betiere testuaren informazio juridikoa bermatuta.

C- Justizia Saileko web orrian hizkuntza zerbitzuak eskaini: www.justizia.net (hizkuntza irizpideak, formulario judizialak, glosategiak, hiztegi juridikoak, langile bakoitzari egokitutako hizkuntzako formazioa...)

Justizia Sailerako beren beregi diseinatutako eskaintza hau proiektuaren berritasunetako bat da. Hasteko, esan behar dugu Kataluniako Generalitateak baduela antzeko web orri bat Justizia Administrazioako langileentzat. Web orri hori orientabidea izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Sailaren web orriko hizkuntza-zerbitzuak diseinatzeko.

Hala ere, erkidego bien egoera soziolinguistikoa oso ezberdina da eta, ezberdina izango da beraz, erkidego bakoitzeko zerbitzuak erantzungo dituen hizkuntzako beharrianak. Dena dela, aurrerago azalduko ditugu Eusko Jaurlaritzaren eta Generalitatearen Justizia Administrazioako web orrien arteko aldeak.

Hauek dira hizkuntza zerbitzuen eskaintzaren ezaugarriak:

- ✓ **Berria** da EAEn.
- ✓ Justiziarekin zerikusia duten taldeen bilgune izango litzateke (magistratuak, funtzionarioak, abokatuen eta prokuradoreen elkargoak...).

Berritzailea da, orain arte Justizia Administrazioan eskaini den hizkuntza-formazioan aldaketa kualitatibo handia ekarriko duelako. Sistema berean elkartuko genituzke langileek euren lana euskaraz egin ahal izateko sortuko zaizkien kontsultak eta behar duten hizkuntza-prestakuntza.

Beraz, ON-LINE egongo den egitura bat sortuko dugu, langileei urrutitik **pertsonalizatutako edo banan-banako prestakuntza** emateko. Eduki nagusi hauek izango ditu:

- ✓ INTERNET bidezko **kontsulta zerbitzu etengabea** euskarako dinamizatzailerik.
- ✓ Euskara Batzordeak euskarazko **dokumentu normalizatuak** sortu ahala, **sarean jarri**. Langileen ekarpenak ere hartuko dira kontuan.
- ✓ Langileentzako **etengabeko prestakuntza**, langileen beharrianetara egokitutako unitate didaktikoak erabilita.

Tresna informatiko horrek, gainera, gure langileak euskararen erabileran gero eta **autonomoagoak** izaten lagunduko luke. Esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileei, euskarazko testuak bete edo sortu ahal izateko (dinamizatzailerik laguntzaz) behar diren baliabideak eskuragarri jarri nahi dizkiegu.

4.2. Formazio prozesuaren hiru oinarrien elkarmenpekotasuna, eta formazio prozesu hori aurrera eramateko premisak

Hasieran esan dugun bezala, prestakuntzako proiektu hau hiru zutabetan oinarritzen da, eta hiru zutabeek bata besteari beharra dute. Hauek dira:

Batetik, kalitate taldeen metodologiari eta filosofiari buruzko prestakuntza, bestetik, herritarrengandik hurbilago dagoen euskarazko hizkera juridikoari buruzko prestakuntza eta, azkenik, Justizia Sailaren web orrian (www.justizia.net) hizkuntza zerbitzuak eskaintzea.

Prestakuntza prozesua hiru zutabe horietan oinarritzeak ondorio nabarmenak izango ditu, baina aurrera eramateko baldintza batzuk era behar ditu:

4.2.1. Prestakuntzan izango dituen ondorioak:

Kalitate taldeen filosofiari jarraituta, helburu orokorrak zehazten dira (taldeak berak zehaztuta) eta baita banakako helburuak (ahoz eta idatziz euskara erabiltzeko konpromisoa).

Banakako helburuak, langile bakoitzaren euskara mailaren arabera izango dira. Hau da, helburu egokiak zehaztuko dira, neurgarriak eta, batez ere, lorgarriak. Horregatik, helburuak langile bakoitzarekin adostuko dira (euskara gaitasunaren arabera), eta prestakuntza bere euskara mailara egokituko da.

Horren arabera, aipatu nahi genuke zer prestakuntza mota eskainiko diegun euskara maila altua duten langileei (EGA edo parekoak). Kasu horietan gure prestakuntza ez da estrategia errezeptiboan oinarrituko (ez gara mugatuko inprimaki bateko datuak betetzen erakustera), baizik eta estrategia sortzailean edo komunikatiboan oinarrituko da. Euskarazko hizkera juridikoaren modernizazioan eta demokratizazioan oinarrituko da.

Horrela, langileek eurek, prestakuntza jaso ostean eta adostutako irizpideen arabera, egokitu beharreko testuak egokitzeko gai izango dira (dinamizatzailen eta itzultzaileen laguntza izango dute) eta haiek egokitutako dokumentuak.

4.2.2. Prestakuntza mota hau aurrera eramateko beharrezkoak diren premisak

1. Aukera izatea hizkera juridikoa modernizatzeari eta demokratizatzeari buruzko prestakuntza emateko
2. Euskara Batzordeak lantaldeek egiten dituzten proposamenak aintzat hartzea.
3. ON-LINE hizkuntza zerbitzuak eskaini ahal izateko baliabideak eskuratzea. Web orria diseinatzea, eta esperientzia pilotuak martxan jarriko diren organoetan baliabide informatiko nahikoak egotea (PCak eta Interneteko sarbidea).

Baldintza horiek bete arren, ez dugu lortuko jarraian Justizia Administrazioako hizkuntzako ohiturak aldatzea, baina gauza garrantzitsu asko lortuko ditugu:

- ✓ Langileen kalitateko zerbitzua eskaintzen ari diren sentsazioa izango dute. Gainera, haiek egiten dituzten proposamenak kontuan hartzen direla ikusteak poztasuna emango die.
- ✓ Langileek era aktiboan hartuko dute parte etengabe ON-LINE eskainiko diren hizkuntza zerbitzuetan. Berariazko web orria sortuz gero, langileek harreman zuzena izango dute dinamizatzailerekin, eta eskura izango dituzte euskararen inguruko baliabideak, haien lana hobeto betetzeko. Gainera, langileek etengabeko harremana izango dute esperientzia pilotuetan parte hartzen duten gainerako langileekin.
- ✓ Proiektu berritzaile bateko kide izango dira. Proiektu aitzindaria izango da bai metodologiaren aldetik, bai eskaintzen den formazioaren aldetik.
- ✓ Gainera, justiziarekin zerikusia duten elkarte eta kideen bilgunea izango da euskarazko hizkera juridikoari dagokionez (magistratuak, funtzionarioak, abokatuen eta prokuradoreen elkargoak).

Laburbiltzeko, kontuan izan behar da proiektu hau bihar-etzi Justizia Administrazioako beste langile batzuei eskainiko zaiela eta, beraz, behar-

beharrezkoa da oraingo esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileek proiektuari kalitatekoa, berritzailea eta parte-hartzailea iriztea.

4.3. Ondorioa: jarduera planaren bideragarritasuna

Azaldutako jarduera plan hori aurrera eraman ahal izateko, hiru eskakizun zehatz horiek egin genituen. Zuzendariak onartu egin zituen eskakizunak, eta orduean hasi ginen jarduera planak aipatzen dituen Internet bidezko hizkuntza-zerbitzuak diseinatzen.

5. Web orriko hizkuntza-zerbitzuak hedatu: euskararen erabilera sustatzetik, Justizia Administrazioako euskararen erreferentzia izatera

Aurreko atalean azaldu dudan bezala, web orriaren eskaera euskararen erabilera sustatzeko dinamizatzaileok egin genuen, geure jardura plana aurrera eramateko, baina euskararen erabilera sustatzeaz gain, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak baditu zeregin gehiago hizkuntza normalkuntzaren inguruan:

1.- Transferitutako langileen kasuan, lehen ikusi dugun euskararen normalkuntza-planak arautzen dituen gainerako arloak: hizkuntza-eskakizunak esleitu, banakako planak diseinatu eta euskara-ikastaroetarako liberazioak eman.

2.- Ez transferitutako langileen kasuan: euskara-ikastaroen ardura, hizkera juridikoari buruzko ikastaroak emateko ardura...

Jakina, behin Interneten Justizia Administrazioan hizkuntza-zerbitzuen inguruko tresna bat jarritz gero, arlo guztiak landuko dituen tresna izatea komeni da. Beraz, euskararen erabilera sustatzeko tresna izateaz gain, euskara eta Justizia Administrazioarekin zerikusia duten arlo guztientzat lagungarri izango den tresna izango da. Hasierako proposamenetik, web orria bi norabidetan hedatu da:

1. Hartzaileak. Hasieran, Justizia Administrazioako profesionalei mugatuta zegoen tresna. Orain, ordea, herritar guztientzat dago zabalik, nahiz eta sarrera mugatuko atal batzuk izan.
2. Gaiak. Hasieran, euskararen erabilera sustatzeko baino ez zen diseinatu web orria. Orain, ordea, Justizia Administrazioarekin eta euskararekin zerikusia duten gai guztiak bilduko dira bertan. Hala ere, esperientzia pilotuetako parte-hartzaileek lehentasuna izaten jarraituko dute.

6. Gure web orriko hizkuntza-zerbitzuak sortzeko iturriak

Justizia Administrazioaren barruan beren beregi euskarari egokitutako web orria sortzeko iturri nagusi bi erabili ditugu:

1. Kataluniako Generalitateko web orria.
2. Eusko Jaurlaritzako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE - IVAP) web orria.

Ikus ditzagun web orri bi horietatik atera ditugun ideiak:

6.1 Kataluniako Generalitateko Justizia Saileko web orria⁸



6.1.1 Testuingurua

Hasteko, esan behar dugu parekotasun handiak daudela Kataluniako eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailean artean, hizkuntza politikari dagokionez. Oro har, biek darabiltzate neurri antzekoak hizkuntzaren normalkuntza lantzeko: batetik, kataluniera-ikastaroak antolatzea Justizia Administrazioako langileentzat eta, bestetik, katalanaren erabilera sustatzea bulego judizialean. Horixe jasotzen da Generalitateko Direcció General de Política Lingüísticak Justizia Administrazioarako ezartzen dituen helburuetan:

L'Administració de justícia⁹

Els objectius fixats pel Govern en aquest sector són:

⁸ <http://www.gencat.net/justicia/llengua/>

⁹ Direcció General de Política Lingüística. *Informe sobre política lingüística 2000*. Internetetik jaso: <http://cultura.gencat.es/llengcat/informe/cat.htm>

a) Garantir el coneixement del català per part dels jutges, dels magistrats i, sobretot, dels funcionaris al servei de l'Administració de justícia (article 13.5 de la Llei de política lingüística).

b) Garantir la disponibilitat lingüística de les oficines judicials (article 13.2 de la Llei).

(...)

2.1. El coneixement del català a la judicatura i en el personal de l'Administració de justícia

(...) Pel que fa a l'ensenyament, l'any 2000, mitjançant un acord amb l'Escola d'Administració Pública de Catalunya, s'han organitzat 74 cursos de català de 80 hores de durada per al personal de l'Administració de justícia.

(...) l'Administració de justícia. També s'han organitzat uns altres 28 cursos de llenguatge jurídic, de 24 hores cada curs, amb vista a preparar el futur certificat de nivell J de la Direcció General de Política Lingüística. Els 74 cursos generals, 15 dels quals han estat subvencionats al 50% per l'Escola d'Administració Pública de Catalunya, han tingut un cost de 47.330.000 pessetes. En conjunt, s'hi han inscrit 1.281 funcionaris, dels quals 664 s'han presentat a examen i 396 han superat la prova final.

2.2. L'assessorament

Al personal al servei de l'Administració de justícia, també se li ha prestat assessorament lingüístic per mitjà dels 43 tècnics de l'equip de dinamitzadors lingüístics del Departament de Justícia, els quals, en conjunt, han elaborat 14.885 documents, un nombre lleugerament superior al de 1999, en què en van elaborar 14.660.

2.4. El Pla pilot de funcionament en català de 40 oficines judicials

Com a conseqüència de la lentitud de l'avenç del català a l'Administració de justícia i de la poca repercussió pràctica dels cursos de català i de l'esforç de la l'equip de dinamitzadors lingüístics dels jutjats, l'any 2000 el Departament de Justícia, d'acord amb el de Cultura, va idear un pla pilot que permetés de concentrar els esforços i els recursos en determinades oficines judicials, acollides de manera voluntària al Pla. L'objectiu d'aquest Pla, que es va posar en funcionament el 9 d'octubre de 2000 en un acte que va tenir lloc als Jutjats de Barcelona, és aconseguir que les oficines inscrites treballin normalment en català, de manera que el món del dret, en el seu conjunt, percebi que això és possible.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailean, Kataluniao Generalitatearen aldean, ez dugu Esperientzia Pilotuetatik kanpo aritzen den dinamizatzailearik. Gurean, euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuetan daude sartuta 4 dinamizatzaileak. Gainerakoan, neurri antzekoak onartu dira EAEko Justizia Administrazioan.

Hala ere, erkidego bien errealitatea hizkuntzari dagokionez, guztiz ezberdina da. Gaur egun kataluniarren %75 dira katalanez hitz egiteko gai, eta ulertzeko

%95¹⁰. Katalanaren egoera Justizia Administrazioan ere, askoz hobe da euskararena baino. 2001eko ekainean, Katalunian 66 epaitegi erabiltzen zuten katalana epaietan¹¹, eta EAEn epaitegi bakar baten ere ez da euskara epaietan erabiltzen, itzulpen sistemaren bidez eskatu ezean. Bestalde, iazko ekainean, Katalunian 450 funtzionariok erabiltzen zuten katalanera lanarekin zerikusia duten eguneroko idatzietan. EAEn, ordea, zonalde euskaldunetako bake-epaitegi-tako langileez aparte, ia¹² inork ez du erabiltzen euskara eguneroko idatzietan.

Katalanaren eta euskararen arteko alderik handiena, beharbada, gaztelaniarekiko hurbiltasun edo urruntasuna da. Katalana eta gaztelania jatorri bera duten bi hizkuntza dira, eta sintaxian antzekotasun handiak dituzte. Horrek eragina du arlo guztietan: hizkuntza bat ala bestea ikasteko batz besteko denbora, itzultzeko duen zailtasuna... Hizkuntza bien arteko hurbiltasunak aukera ematen du katalanarentzat tresna eta baliabide ugari sortzeko, eta horren erakusgarria da Kataluniako Justizia Sailaren web orrian agertzen diren **Serveis lingüístics** atala (hizkuntza zerbitzuak). Ikus dezagun nola dagoen osatuta:

6.1.2. Generalitateko Justizia Saileko web orriko hizkuntza zerbitzuak

12 atal nagusi ditu:

1. Críteris lingüístics

Zuzentasunez eta argi idazteko aholkuak eta arauak agertzen dira. Estilistikaren inguruko oharra dira gehienak: puntuazioa, letra larrien erabilera, laburdurak, leku-izenen zerrenda katalanez... IVAPen *Hizkera Argiaren Bidetik*-en antzekoa da. Geuk ere antzeko tresna bat jarriko dugu.

2. Retolació

Katalanezko errotulazioa idazteko arauak ematen ditu. Generalitateak argitaratutako lan batean¹³ oinarritzen dira arauak. Guk gai hau lantzeko ez diogu aparteko atalik sortu, baina euskarazko errotulu guztiak agertzen dira dagoeneko www.justizia.net -en, EAEko Justizia Administrazioako organoen helbide-zerrendan.

3. Formularis

Justizia Administrazioako inprimaki ugari agertzen da bertan. Nahi duenaren esku daude, norbere ordenagailura jaisteko moduan. Geuk ere inprimaki ugari jarriko dugu sarean, baina ezberdintasun nabarmen bat dute Kataluniako

¹⁰ Iturria: 2002ko maiatzaren 26ko ARGIA. *Katalanak ere “preocupats” erabileraren kontuarekin* artikulua, Pablo Suberbiolak idatzia.

¹¹ Iturria: *El Pla pilot de funcionament en català de les oficines judicials*. Barcelona, 18 de juliol de 2001. Barruko txostena.

¹² 2002ko maiatzean hasi ginen esperientzia pilotuetan parte hartzen duten organoetako diagnosia egiten, eta oraindik organo guztietako datu zehatzik ez izan arren, horixe da ondorioa. Izan ere, bake-epaitegiek askatasun handiago dute idatzietan euskara erabiltzeko, udaleko bake-epailearen menpe daudelako. Hala ere, erabiltzen duten dokumentu sorta osotik, banaka batzuk baino ez dituzte elebitan erabiltzen: apud actak, eginbideak, zitazio zedulak.

¹³ PRATS, J.; ZIMMERMANN, Y. *Manual de senyalització d'espais interiors*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de la Presidència, 1987.

inprimakiekiko. Katalunian inprimaki asko word-eko txantiloietan (plantillak) txertatzeko eginda daude. EAEko epaitegi arruntetako funtzionarioek (hau da, bake epaitegietakoak ez beste guztiak) terminalekin egiten dute lan, hau da, tramitazio-eskema itxien bidez, beraz, ezin ditugu langile horientzako inprimakiak word edo antzeko formatu batean sarean utzi, ezingo luketelako aprobetxatu¹⁴. Bake-epaitegietako langileentzat, ordea, jarriko ditugu, formatu estandar batean (word edo Access), edonork jaisteko moduko inprimakiak, eta inprimaki horiek kudeatzeko aplikazioa.

4. Legislació i informes

Katalunian Justizia Administrazioarako hizkuntza-normalkuntzaren inguruan onartu diren arauak eta txostenak agertzen dira. Geuk ere jarriko dugu informazio hori.

5. Autoaprenentatge

Edonork jaisteko moduko programak daude, norbere kontura ikasteko, autoikaskuntza bidez. Guztira lau aukera daude. Batzuk gaitasun jakin bat hobetzera begira daude. Geuk ere antzeko zerbitzu bat eskainiko dugu, baina epaileei, fiskalei eta idazkari judizialei mugatuta, HABEren esku dagoen HEZINET bidez.

6. Llibres de dret en català

Zuzenbideari buruzko katalanezko liburuen zerrenda dago: hiztegiak, glosategiak, eskuliburuak eta dibulgazioko testuak. Geuk ere antzeko tresna bat eskainiko dugu.

7. Terminologia

Hizkera juridikoari buruzko hiztegi terminologikoak, katalan, gaztelania, ingeles, frantses eta italierazko hiztegi terminologikoen estekak, hiztegi orokorrak... Geuk ere antzeko tresna bat jarri dugu.

8. Certificats de català

Katalanezko hizkuntza eskakizunen inguruko informazioa. Katalunian 3 hizkuntza gaitasun daude (A, B eta C) eta Eusko Jaurlaritzan 4 (1, 2, 3 eta 4). Hizkuntza eskakizunak nola egiaztatu daitezkeen azaltzen da. EAEn IVA Pek baino ez du euskarazko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke deialdiak, e.a. antolatzeke gaitasuna eta ardura. Esteka baten bidez, HAE Eko web orrira zuzenean joateko aukera emango dugu geure web orrian.

9. Correctors informàtics

Zuzentzaile ortografikoak eta word-en txertatzeko hiztegiak ageri dira. Guk Xuxen zuzentzaile ortografikoa¹⁵ jaisteko bidea emango dugu, esteka baten bidez.

¹⁴ Gure web orriaren edukari buruz hitz egiten dugunean azalduko dugu hau sakonago.


¹⁵ http://www1.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm

10. Jornades, comunicacions i articles

Hizkuntza normalkuntzarekin zerikusia duten ikastaroak eta artikuluen gaineko informazioa dator.

11. Traducció automàtica

Gaztelaniatik katalanera itzulpen automatikoak egiteko aukera ematen duten 4 web orriren esteka agertzen dira. Abantaila ikaragarria da hori katalanarentzat. Guk ez dugu horrelako tresnarik.



12. Adreces útils

Katalanaren hizkuntza normalkuntzarekin zerikusia duten web orrien estekak agertzen dira, hiru taldetan banatuta:

- Katalana eta informatika uztartzen dituzten web orriak.
- Hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten web orriak.
- Bestelakoak

6.2. HAEE – IVAPeko web orria¹⁶

IVAPek baditu ardura jakin batzuk EAEko hizkuntza-normalkuntzan:


- Administrazioko hizkuntza-eskakizunak: probak egitea, azterketak sortzea, agiriak ematea...
- Administrazioko hizkera normalizatzea: itzulpenak (Itzulpen Zerbitzu Ofiziala), Administrazioa Euskaraz aldizkaria, kontsulta-zerbitzua...

Eta arlo biei buruzko informazioa eta baliabideak ditu bere web orrian. Biak ala biak dira gure web orrirako beharrezkoak. Hizkuntza-eskakizunen arloa IVAPen ardura baino ez da, beraz, guk orri honetara eramango gaituen esteka

¹⁶ www.ivap.org

bat jarriko dugu Justizia Administrazioa web orrian. Bertan agertuko dira hizkuntza eskakizunen inguruko deialdiak, probak...

IVAPen web orrian agertzen den administrazioa hizkeraren arloa ere esteka baten bidez jarriko dugu gure web orrian, administrazioa hizkeraren eta hizkera juridikoaren inguruko gainerako estekekin edo tresnekin batera.



IVAPeko Administrazioa hizkera atalaren barruan bi arlo nagusi daude:

1. **Administrazioa hizkera argia erabiltzeko aholkuak eta irizpideak.** Aspalditik jarraitzen ditu IVAPek Ingalaterran sortutako Plain English-en planteamenduak¹⁷. Hau da, administrazioa testuak sortzerakoan, sinplekeriatan erori gabe, sinple eta argi idazteko ideia zabaldu nahi du IVAPek. Bi argitalpen ditu sarean: *Argi idazteko bideak* eta *Argiro*.
2. **Didaktizatutako dokumentu eta inprimaki-ereduak.** Administrazioa (bai udaletan, bai administrazio orokorrean) sarri erabiltzen diren dokumentu eta inprimakiak euskara argi eta onean sortzeko argibideak eta adibideak agertzen dira. Ariketak ere badaude. Justizia Administrazioa dokumentu berezituak erabiltzen dira, baina gainerako administrazioetako dokumentu batzuk ere erabiltzen dira, esaterako, ofizioak, eskutitzak, aktak... Gainera, argi idazteko irizpideak behin barneratuta, edozein testu motari aplikatu dakizkioke. Guk Justizia Administrazioa dokumentu berezitu horietako batzuk (sinpleenak eta erabilienak) didaktizatu ditugu, langileen trebakuntza saioak emateko. Unitate didaktiko berezitu horiek sarean utziko ditugu.

¹⁷ <http://www.plainenglish.co.uk/history.html>

7. Laguntza teknikoa

Eusko Jaurlaritzako normalkuntzarako teknikariok web orria sortzeko ideia eduki dugu, baina ezintasun asko ditugu informatikaren arloan, batez ere, web orrien diseinuan. Zeregin horretan laguntzeko azpikontrataturako enpresa bat izan dugu: Ibermatica. Berorrek du geure zuzendaritzako informatikaren inguruko bestelako lanen ardura ere. Bi arlotan jaso dugu laguntasuna:

1. **Edukiak eta zerbitzuak.** Hasieratik argi izan dugu zein tresna edo baliabide eskaini nahi izan dugun Internet bidezko geure hizkuntza-zerbitzuetan. Tresna horiek, gainera, guk geure aldetik, urrutiko formazioan eta trebakuntzan lan egiten duten Interneteko web orri asko¹⁸ bisitatuz lortu dugun informazioarekin osatu dugu, eta ideia ugari atera dugu, baina guk aurreikusi ezin izan ditugun aukera, eduki eta zerbitzu batzuk erakutsi dizkigu Ibermatica enpresak.
2. Web orriaren **diseinu informatikoa.** Ibermaticako informatikari bik, nire lankidetzarekin, sortu dute fisikoki web orria. Astero biltzen izan gara atal bakoitzean ze informazio jarri argitzeko, nabarmendu beharreko informazioa adosteko, eskain daitezkeen zerbitzu berrien inguruan hitz egiteko...

Ibermatica enpresak dagoeneko sortu du web orri orokorra Justizia Administrazioarentzat, Eusko Jaurlaritzaren aginduz. Guk eskaini nahi ditugun Internet bidezko hizkuntza zerbitzuak web orri nagusi horren barruan kokatzeko diseinatu dira.

¹⁸ Aipamen berezia merezi du, beharbada, www.zabalnet.com web guneak, urrutiko prestakuntzak dituen aukerei buruz asko erakutsi baitigu.

8. Web orriaren azterketa eta diseinua

8.1. Deskribapen orokorra

Hasteko, gauza bat zehaztu behar dut: Lehen esan dudan bezala, Justizia Administrazioak baditu, gureaz aparte, Internet bidezko beste zerbitzu batzuk, eta denak biltzen dira www.justizia.net web orrian. Euskarazko hizkuntza zerbitzuak eskainiko dituen gure web gunea Justizia Administrazioko web orrian txertatuta egongo da, beste atal bat izango balitz lez. Halaxe gertatzen da Kataluniako Justizia Sailean ere.

8.1.1 Sortu diren tresnen azalpena

Lau homepage sortu dira, hizkuntza-normalkuntza martxan jarriko den plataformako, bana:

- Internet; herritar guztiek edukiko dute bertara sartzeko aukera.
- Intranet; sare judizialaren barruan dauden Justizia Administrazioko langile guztiek edukiko dute bertara sartzeko aukera.
- Intranet mugatua; sare judizialaren barruan dauden eta euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuetan parte hartzen duten Justizia Administrazioko langileek baino ez dute edukiko bertara sartzeko aukera.
- Extranet; esperientzia pilotuetan parte hartzen duten bake epaitegietako langileek baino ez dute edukiko bertara sartzeko aukera.

Intranet mugatua eta Extranet bereizteko arrazoia hau da: bake-epaitegietako langileak ez daude sare judizialaren barruan, beraz, Internetetik sartuta edukiko dute esperientzia pilotuetako langileentzat sortu ditugun baliabideetara jotzeko aukera.

8.1.2 Atal bakoitzaren helburuak eta beharrianak

INTERNET

Helburuak:

- Euskararen erabilera areagotu, herritarrengan eta Justizia Administrazioko langileengan.
- Euskarazko dokumentuak sortu ahal izateko, laguntza linguistikorako tresnak eskaini.
- Euskarazko hizkera juridikoko inprimakiak eta dokumentuak eskaini.
- Hizkuntzako edo gramatikako zalantzei buruzko datu-basea eskaini.

- Herritarrei erakutsi Justizia Administrazioa euskaldunduz doala.

Beharrianak:

- Hizkuntza-normalkuntzako teknikarien eta web masterraren arteko etengabeko komunikazioa, herritarraren zalantzak erantzuteko.

INTRANET

Helburuak:

- Euskararen erabilera areagotu, herritarrengan eta Justizia Administrazioko langileengan.
- Euskarazko dokumentuak sortu ahal izateko, laguntza linguistikorako tresnak eskaini.
- Euskarazko hizkera juridikoko inprimakiak eta dokumentuak eskaini.
- Hizkuntzako edo gramatikako zalantzei buruzko datu-basea eskaini.
- Justizia Administrazioko langileei euskara-ikastaroen, hizkuntza-eskakizunen, albiste edo berrien eta normalkuntza-saioen berri eman.

Beharrianak:

- Hizkuntza-normalkuntzako teknikarien eta web masterraren arteko etengabeko komunikazioa, langileen zalantzei, iradokizunei, e.a. erantzuteko.
- Ikastaroei eta albisteei buruzko informazioa eguneratzeko arduraduna.

INTRANET MUGATUA – BAKE-EPAITEGIETARAKO EXTRANET

Helburuak:

- Esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileentzat tresna lagungarria izatea.
- Esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileek informazioa trukatzeko eta elkarren berri izateko tresna izatea.
- Normalkuntzako teknikarien eta esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileen artean komunikatzeko bide eraginkor eta zuzena bermatzea.

Beharrianak:


- Zeregin horiek betetzeko eta datuen mantenuaz arduratuko den langilea.

8.1.3 Informazioaren eguneratzea

Web masterra, hizkuntza-normalkuntzako teknikarien lankidetzarekin, herritarrei zalantzak argitzeko arduraduna izango da. Web masterra Justizia


Administrazioko www.justizia.net web orri orokorraren ardura duen teknikaria da.

Hizkuntza-normalkuntzako teknikariek gramatika-zalantzen eta hizkuntza-irizpideen datu basea eguneratuko dute, web horri honetarako bereziki sortutako mantentze-aplikazio baten bitartez.



2. Datuen eredu logikoa

Ondoren agertzen da hizkuntza zerbitzuetan edo gure sisteman elkarreragiten duten taldeek sortzen dituzten prozesuen eredu logikoa.



Eskema hori modu orokorrean agertzen da, baina arestian esan dugu lau pantaila diseinatu direla, bakoitzera nor sartuko den kontuan hartuta, hau da, bakoitzak zertarako baimena duen izango da baztertzailea. Ondoko taula honetan agertzen da goiko talde bakoitzak (a, b, c, d, e, f) zertarako baimena duen pantaila bakoitzean:

	Internet	Intranet orokorra	Intranet mugatua	Extranet
EKZ	R/W	R/W	R/W	R/W
Normalkuntzako tekn.	R/W	R/W	R/W	R/W
Herritarrak	R			
Justizia Adm.ko langileak	R	R		
Justizia Adm.ko langileak (esperientzia pil.)	R	R	R	
Bake-ep.etako langileak (esperientzia pil.)	R			R

R = irakurtzeko baimena

W = aldaketak edo eguneraketak egiteko baimena

Hizkuntza normalkuntzarako teknikariak eta Edukiak Kudeatzeko Zerbitzua izango dira informazioa eta edukiak eguneratzeko eta mantentzeko arduradunak.

8.3. Pantaila bakoitzera (Internet, Intranet, Intranet mugatua eta Extranet) sartuko den erabiltzaile-taldeen deskribapena:

Herritarrak

Interneten, hau da, www.justizia.net-en hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen diren modulan, dauden zerbitzu guztietara sartzeko baimena izango dute:

- Informazio orokorra
- Idazkiak eta inprimakiak
- Hizkuntza-irizpideak
- Laguntza-tresnak...

Bake-epaitegietako langileak

Erabiltzaile-izen eta pasahitz jakin batzuk erabilita, esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileentzat mugatutako guneetara sartuko dira. Sare judizialek kanpo daudenez, Internetetik zuzenean sartuko dira, pasahitzak erabilita. Zerbitzu hauetara sartzeko aukera izango dute:

- Bake-epaitegietako langileentzat bereziki sortutako aplikazioa¹⁹ jaitsi.
- Aplikazio hori eguneratzeko dokumentu berriak jaso.
- Laguntza tresnak.
- Hizkuntza-irizpideak
- Galdera ohikoenak kontsultatzeko eta, gainera, normalkuntzako teknikariei zalantzak bidaltzeko aukera.
- Esperientzia pilotuetako gainerako parte-hartzaileen helbideak eta telefonoak kontsultatu.
- Unitate didaktikoetara sartu.

Normalkuntzako teknikariak

Justizia Administrazioako www.justizia.net web orriko hizkuntza-zerbitzuen atalaren mantentze-lanen arduradunak dira. Horretarako, mantentze-modulu edo tresna bat prestatuta egongo da. Neu izango naiz horren arduraduna, eta hauxe eguneratu eta mantenduko dut:

¹⁹ Bake-epaitegientzat Access bidezko aplikazio bat sortu dugu, dokumentu judizialak sortzeko euskaraz eta gaztelaniaz era automatikoan. Aurrerago azalduko dugu hori hobeto.

- Galdera ohikoenak
- Berriak eta Nobedadeak
- Oharrak
- Docuteca (idazki-sortak...)
- Foroak
- Esteka interesgarriak

Justizia Administrazioko langileak (esperientzia pilotuetakoak)

Langileren bat esperientzia pilotuetako kide bada, Intranet orokorraz gain, sarrera mugatuko Intranetera sartzeko baimena izango du, hain zuzen, esperientzia pilotuetako kideentzat sortutako gunera. Zerbitzu hauek izango ditu:

- Eguneroko lanean erabiliko dituzten dokumentu judizial berriak sortu ahala, jakinaren gainean egongo dira
- Esperientzia pilotuei buruzko informazio orokorra
- Euskara batzordeari buruzko informazioa
- Euskara ikastaroei eta hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioa, eta on-line izena emateko aukera
- Autoikaskuntza (epaile, fiskal eta idazkari judizialentzat baino ez).
- Laguntza tresnak
- Idazkiak eta inprimakiak
- Hizkuntza irizpideak
- Galdera ohikoenak eta, gainera, normalkuntzako teknikariei zalantzak bidaltzeko aukera.
- Esperientzia pilotuetako gainerako parte-hartzaileen helbideak eta telefonoak.
- Unitate didaktikoak.

Justizia Administrazioko langileak

Intranetera sartuko dira, baldin eta sare judizialaren barruan badaude. Honako zerbitzu hauetara sartzeko aukera izango dute:

- Esperientzia pilotuei buruzko informazio orokorra.
- Euskara Batzordeari buruzko informazioa.
- Hizkuntza-eskakizunei eta euskara-ikastaroei buruzko informazioa, eta ikastarootan izena emateko aukera, on-line.


- Autoikaskuntza (epaile, idazkari judizial eta fiskalentzat baino ez).
- Laguntza tresnak
- Idazkiak eta inprimakiak

Edukiak Kudeatzeko Zerbitzua

www.justizia.net web orriaren barruan euskararentzat sortutako Hizkuntza Zerbitzuetan dagoen informazio guztia kontrolatzeko eta mantentzeko ardura izango du.


8.4. Pantaila edo modulu bakoitzaren deskribapena eta edukiak: Internet, Intranet, Intranet mugatua eta Extranet

Ondoko egitura-diagrama honetan zehazten da zein den “Hizkuntza Zerbitzuak” sistemaren moduluen edo pantailen egitura. Bertan agertzen dira egitura eta moduluen arteko hierarkia, lotura eta komunikazioa.



Ondoren, moduluen deskribapena eta edukien azalpena egingo dugu, aurreko diagraman agertzen denaren arabera.

8.4.1 Internet



Herritar guztiek izango dute pantaila honetara sartzeko aukera. Modulu hau hizkuntza normalkuntzako teknikariek eta Edukiak Kudeatzeko Zerbitzuak mantenduko dute. Pantaila hau euskaraz edo gaztelaniaz ikusteko aukera dago.

Hauek dira atal bakoitzaren edukiak:

8.4.1.1. Esperientzia pilotuak

Atal honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Esperientzia Pilotuei buruzko informazio orokorra dago.

Informazio estatikoa denez, HTML-n programatu da zuzenean.

- Lege oinarrietan, euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuak ze lege edo akordiotan oinarritzen diren agertzen da. Batetik, 1999ko otsailaren 18ko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena aipatzen da. Hitzarmen hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako zenbait alorretan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa da. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Sindikatuen arteko bigarren Akordioa²⁰ aipatzen da. Akordio hori Justizia Zerbitzu Publikoa modernizatzeari

²⁰ abenduaren 26ko 309/2000 Dekretuaren Eranskina

buruzkoa eta Justizia Administrazioako langileen lan-baldintzetan modernizatzeak izango dituen ondorioei buruzkoa da.

- Helburuak. Plan pilotuaren helburu nagusia, plana ezartzen den bulego judizialetan euskararen erabilera bultzatu eta bermatzea da. Helburua ez zaio soilik planaren iraupenari lotuko eta, horrez gain, erabilera-mailari eta planean zehar lortutako konpromisoei eusteko beharrezkoak diren jarduerak jorratuko dira.

Aipatu helburua euskararen erabilera bultzatzen duten jarrerak areagotuz lortuko da, eta horretarako langileen partaidetza, prestakuntza egokia eta motibazioa sustatzea beharrezkoa izango da.

Bestalde, helburu zehatzak hiru esparru nagusitan banatuko dira:

Epaitegiaren irudia.- Epaitegian bertan euskararen presentzia areagotzea (adib.: errotulazioan, paisaia linguistikoan, gutunazalean, eskutitzen karatuletan, faxetan...).

Idatzizko produkzioa.- Idatzizko dokumentuetan euskararen erabilera areagotzea, bereziki, herritarrari zuzentzen direnetan, adib.: jakinarazpenak, epatzeak, etab. (administratuarekiko harremanei dagozkienak).

Ahozko harremanak.- Ahozko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea (ad: telefonoz esaten den lehenengo hitza edota herritarrari egiten zaion harrera, etab.)

- Organoak proposatzeko irizpideak. Esperientzia pilotuen 2002ko deialdian 22 organo baino ez ditugu aukeratu, eta irizpide batzuk ipini ditugu organoen hautapena egiteko. Horretarako, lehentasun batzuk jarri genituen: organoa kokatuta dagoen guneko euskaldun kopurua, organoko euskaldun kopurua, eta herritarrekiko harreman kopurua. Horren arabera, zonalde euskaldunetako organoak aukeratu ditugu, eta euskaldun kopuru handia dutenak, eta herritarrei begira lan egiten dutenak. Hauek dira aukeratutako organoak:

ORGANOAK	HERRIA
Lekeitioko bake-epaitegia	Lekeitio
Ondarroako bake-epaitegia	Ondarroa
Igorreko Bake-epaitegia (Udal elkarteak)	Lemoa Bedia Igorre Arantzazu Artea Zeanuri Dima Ubidea Areatza
Zamudioko Bake-epaitegia (Udal elkarteak)	Zamudio Lezama Larrabetzu
Durango: Dekanotza, Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak, 1, 2, 3 eta 4 zk.	Durango
Auzitegi Nagusia Zibileko eta Zigor arloko Sala	Bilbo

Barroeta Informazioa Dekanotza	Bilbo
Informazioa Buenos Aires Dekanotza	Bilbo
Gidatutako bisitak Bilboko Dekanotza	Bilbo
Lehen auzialdiko 8 zk.ko epaitegia	Bilbo
Instrukzioko 6zk.ko epaitegia	Bilbo
Azkoitiko bake-epaitegia	Azkoitia
Ibarrako Bake-epaitegia (Udal elkarteak)	Ibarra, Gaztelu, Berrobi, Berastegi, Alkiza
Tolosako epaitegi guztiak	Tolosa
Lazkaoko Bake-epaitegia (Udal elkarteak)	Lazkao, Olaberria, Ataun, Idiazabal
Legazpiko bake-epaitegia	Legazpi
Bergara: Dekanotza 1./I (1, 2, 3, 4 zk.)	Bergara
Zigor arloko: Izapideen eta betearazpenen bulego orokorra	Donostia
Dekanotza. Informazio Zerbitzu Orokorra. Donostia	Donostia
Probintzia Auzitegia 3. sekzioa Donostia	Donostia
Probintzia Auzitegia 1. Sekzioa Donostia	Donostia
Lehen auzialdiko 4 zk.ko epaitegia (Erregistro Zibila) Donostia	Donostia
Instrukzioko 3zk.ko epaitegia Donostia	Donostia

- Lan-prozeduraz eta metodologiaz lehen ere hitz egin dugu. Funtsean, langilez osatutako taldeak sortu ditugu, eta langileen parte-hartzea bultzatu dugu prozesuaren fase guztietan: diagnosian, helburuen proposamenean, ekintzen inplementazioan eta ebaluazioan. Enpresa munduko hobekuntza-taldeen metodologia erabiltzen dugu. Langileengan ohitura aldaketa bat sortu nahi badugu (euskara erabiltzea, alegia), prozesuaren parte bihurtu behar ditugu langileak, horrelaxe lortzen da-eta eurak inplikatzeko eta motibatzea.
- Esperientzia pilotuen ebaluazioa eta hedapena. Ze atal ebaluatuko den eta ebaluaketan nortzuk parte hartuko duten agertzen da. Esperientzia pilotuak aurrera joan ahala, emaitzak jarriko ditugu bertan.
- Jarraipen batzordea. Esperientzia pilotuek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzen duen batzordea da. Batzorde hori nortzuk osatzen duten ere agertzen da.

8.4.1.2. Euskara batzordea

Batzordeari buruzko informazio orokorra agertzen da. Batzordearen egitekoa jurisdikzioka gasteleaz normalizatzen diren agiri judizialak euskaraz normalizatzea da. Helburu horrekin sortzen diren batzordeek normalizatzen dituzte lehenik gasteleaz, eta Euskara Batzordeak ondoren, agiri horietan oinarrituz, euskarazko ereduak adosten ditu.

Kideen aipamena ere egiten da:

Epaile euskaldun bat

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi ordezkari

Bizkaiko Abokatuen Elkargoko bi kide

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kideak: azken boladan ez dute batzordean parte hartu, baina jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bi kide

Unean-unean zeregin horretarako kontratatuta dagoen itzulpen-enpresako bi ordezkari.

Justizia Administrazioako itzultzaile-interpretariak

Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak

Batzordearen koordinatzailea (hizkuntza normalkuntza teknikarietako bat)

Euskara Batzordearen lan-sistema honako hau da: jurisdikzioka pixkanaka maizen erabiltzen diren agiri judizialak aukeratu ondoren euskaratzera bidaltzen zaizkio zeregin horretarako eta deialdi publikoaren ondorioz hitzarmena egin zaion itzulpen-enpresari. Agiri horiek itzulita daudenean, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzatik batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, lehenengo bertsio horren gainean oharrak egin ditzaten, epe jakin batean. Ohar horiek aipatutako enpresak bateratu eta batzordekideei bidaltzen zaizkie, denon oharrak bertan dituztela, bilera aurretik berriz begiratzeko. Ondoren, hiru bat astero edo, bilera egiten da agiri horiek behin betikotzat jotzeko eta epaitegietako sistema informatikoan txertatzen dira. Esan behar da ez direla behin betikotzat jotzen edukiaren eta hizkuntzaren aldetik egon litezkeen zalantza guztiak argitzen diren arte.

8.4.1.3. Formularioak eta idazkiak

- Bake-epaitegietako idazkiak. Dagoeneko badaude www.justizia.net-en bake-epaitegietan erabiltzen diren dokumentu normalizatuak, bake-epaitegi guztiek eredu berberak erabiltzeko asmoz. Gutxi gorabehera 300 dokumentuko sortatik 40 daude euskaraz ere. Word formatuan daude. Esteka baten bidez bertara joateko aukera ematen dugu.

<http://www.justizia.net/docuteca/default.asp?accion=ultimos&cbostndo=1&codtema=0&opcionweb=juzgadosdepaz&Idioma=sp>

- Gainerako organoetako idazkiak. Euskara Batzordeak bake-epaitegiak ez diren gainerako organoentzat itzuli dituen dokumentuak daude, baina kontsultatzeko moduan baino ez, langileek ezin baitituzte erabili. Horren arrazoia da langileek terminalen bidezko aplikazio itxi baten bitartez egiten dutela lan, eta ez dutela ez testu prozesatzailerik, ezta bestelako aplikaziorik ere, eredu horietara jotzeko. HTML formatuan daude. Esteka baten bidez bertara joateko aukera ematen dugu.

<http://www.justizia.net/idazki/idazkies.htm>

- Azken idazkiak. Aurreko ataletan euskarazko eredu berriak sartu ahala, honen bidez jakinaraziko dugu.

8.4.1.4. Euskalduntzea eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapena

Justizia Administrazioko kidego ezberdinentzako informazioa dago. Hiru taldetan banatuta dago, hitzarmen eta lege oinarri ezberdinen arabera daudelako kidegook araututa. Horren ondorioz, talde bateko ala besteko kide izan, aukera gehiago edo gutxiago izango dituzte euskara-ikastaroetara joateko, edo hizkuntza-eskakizunetako azterketetara aurkezteko. Hemen agertzen den informazioa estatikoa izango da.

1. Karrera judiziala

Batetik lege aipamenak egingo ditugu:

- Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena, 1999ko otsailaren 18koa, EAEko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeko.

Bestetik, euskara-ikastaroen eta hizkuntza-eskakizunen inguruko informazioa emango dugu.

- Antolatzen diren euskara-ikastaro motak, eta noiz eta nolako deialdiak egiten diren. Informazio hau estatikoa izango da. Epailentzat deialdi berezitua egiten dugu.
- Hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioa. Honen ardura IVAPena baino ez denez, IVAPeko web orriarekin lotzeko esteka jarriko dugu.

<http://www.ivap.org/eusk/deialdiak/deialdia.htm>

2. Karrera fiskal eta idazkari judizialak

Hemen ere, batetik lege aipamenak egin ditugu.

- 1997ko maiatzean sinatu zen Justizia Administrazioko Ikasketa Juridikoen Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena, EAEko Fiskal eta Idazkari Judizialen prestakuntza arautzen duena.

Bestetik, euskara-ikastaroen inguruko informazioa jarri dugu, baina ez hizkuntza-eskakizunena, haiekin sinatutako hitzarmenak ez baitu hori jasotzen.

- Antolatzen diren euskara-ikastaro motak, eta noiz eta nolako deialdiak egiten diren. Informazio hau estatikoa izango da. Hauentzat ere deialdi berezitua egiten da.

3. Justizia Administrazioko ofizialak, agenteak eta laguntzaileak

Justizia Administrazioiko langileen gehiengoa osatzen dute. Kasu honetan ere, batetik lege aipamenak egin ditugu:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Sindikatuen arteko bigarren Akordioa.
- Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen Dekretua.

Eta bestetik, euskara-ikastaroen inguruko informazioa jarri dugu.

- Antolatzen diren euskara-ikastaro motak, eta noiz eta nolako deialdiak egiten diren. Hauentzat ere deialdi berezitua egiten da.
- Hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioa. Honen ardura IVAPena baino ez denez, IVAPeko web orriarekin lotzeko esteka jarriko dugu, epaileekin egin dugun bezalaxe.

Hirugarrenik, banakako-planei buruzko informazioa dute. Banakako planak ikasketa-planak dira, eta bertan jasotzen da langilea euskara ikastaroetara joaten denean ze maila izan duen, zein hizkuntza-eskakizun egiaztatu behar duen, eta zenbat ordu aurreikusten zaizkion bere euskara ikasteko prozesua bukatzeko. Ordu kopurua, jakina, erritmoaren arabera izango da (egunero bi orduz ikasi, egun osoz...). Langile bakoitzak bere ikasketa-plana diseinatzeko aukera emango dugu.

8.4.1.5. Erakundearteko batzordea

Hau ere informazio estatikoa izango da. Hiru azpiatal hauek izango ditu:

- Partaideak:
 - Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Euskal Herrirako ordezkari bokal bat
 - EAEko Auzitegi Nagusiko presidentea
 - Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea
 - Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako ordezkari bat
 - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
 - Abokatuen Euskal Kontseiluko ordezkari bat
 - Epaile eta Magistratuen elkarteetako ordezkari bana, kasuan kasuko lurraldeko sekzioak izendatutakoak
 - Fiskalen bi ordezkari, Euskal Herrian dauden bi elkarten ordezkari izango direnak
 - Idazkari judizialen bi ordezkari, Euskal Herrian dauden bi elkarten ordezkari izango direnak

Egitekoak eta helburuak:

- Kasuan-kasuan eskumena duten erakunde edota organoei euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko aholkularitza eskaintzea; batik bat, Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalkuntza Planari dagokionez.
- Batzordean ordeztuta dauden erakunde eta taldeen bidez honako ekimenak bultzatzea:

esamoldeak eta terminoak euskaraz bateratzea

esaldien eta terminoen glosategiak lantzea

lege-testuak euskaratu eta ekoiztea

hizkuntza-paisaia normalizatzea

bulego judizialeko materiala normalizatzea

jarduketa judizialetan euskara erabiltzea

idatzere du judizialak erabiltzea

euskara ikastea

- Batzordean ordeztuta dauden erakunde eta taldeen arteko komunikabide izatea, bai batzuen eta besteen iradokizunak, proposamenak eta ekimenak bateratuz zein planen, proiektuen eta hartzen diren erabakien berri emanaz. Alde horretatik, Batzordearen lanaren emaitzek ahalik eta zabalkunderik handiena izango dute eragindako taldeen artean.

Lan-dinamika

Batzordeak bai osoko bilkuran bai gai jakin batzuetarako sor litezkeen azpibatzerdeen lan egingo du. Azpibatzerde horretarako partaideak landu behar diren gaiak zuzenean eragiten dituzten taldeen arabera izendatuko dira.

8.4.1.6. Hizkuntza-irizpideak

Zuzentasunez eta argi idazteko oharrak, aholkuak eta irizpideak dira. Informazio guztia beste web orri batzuetakoa da, eta esteken bidez lotuko ditugu. Oraindik Interneten era honetako informazioa duten web orri guztien azterketa egin gabe daukagu. Dena dela, administrazioako hizkeraren inguruan IVAPek egin du lan gehien. Berorren artikulak, azalpena eta ariketak on-line daude IVAPeko web orrian. Gutxienez arlo hauek bereiztuko ditugu:

- Gramatika zalantzak
- Estilo arazoak
- Idazteko irizpideak
- Hizkera argia
- Komunikazio hobia lortzen

- Testugintza

8.4.1.7. Laguntza tresnak

Langileak dokumenturen bat euskaraz sortzen ari direla, behar dituzten tresnak dira: hiztegiak... Kasu guztietan estekak izango dira.

- Testuetako hustuketa terminologikoetara joateko aukera. Web orri honetako beste atal batean badago aukera orain arte itzultako dokumentu guztiekin egindako hustuketa terminologikoan kontsultak egiteko aukera. Esteka bat jarriko dugu.

<http://www.justizia.net/idazki/idazkieu.htm>

- Euskalterm: http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
- Elhuyar hiztegia: http://www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm
- 3000 hiztegia: http://www1.euskadi.net/hizt_3000/indice_e.htm
- Sinonimoen hiztegia: http://www1.euskadi.net/hizt_sinon/indice_e.htm
- Morrisen hiztegia: http://www1.euskadi.net/morris/indice_e.htm
- Harluxet hiztegi entziklopedikoa:
http://www1.euskadi.net/harluxet/indice_e.htm
- Laburtzapenak: <http://www.ehu.es/laburzki/Laburzki.kabia.html>
- Euskararen korpusa:
http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/Konts_arrunta_fr.html

8.4.1.8. Esteka interesgarriak

Euskararen normalkuntzarekin, euskara lantzearekin eta justiziarekin zerikusia duten esteken zerrenda jarriko dugu. Oraindik zerrenda osoa egin gabe dago.

- Kataluniako Justizia Administrazioako web orria: <http://www.gencat.net/justicia/llengua/index.htm>
- Euskadi.net/euskara: http://www.euskadi.net/euskara/indice_e.htm
- Santurtziko udal euskaltegia: <http://www.santurtzieus.com/euskataria.htm>
- Euskaltzaindia: <http://www.euskaltzaindia.net/>
- IVAP: http://www.ivap.org/eusk/menu_eus.htm
- HABE: <http://www.habe.org/>
- ...

8.4.1.9. Berriak eta nobedadeak

Justizia Administrazioarekin eta euskararekin zerikusia duten gertakari guztiei buruzko informazioa emango dugu: euskara ikastaroetan izena emateko deialdia noiz hasiko den, esperientzia pilotuen inguruko berriak...

8.4.1.10. Menua

Justizia Administrazioaren web gune guztietan agertzen den menua da. Menu hori gure Hizkuntza-zerbitzuak sortu baino lehenagokoa da. Normalkuntzako teknikariok ez dugu parte hartu menu horren diseinu prozesuan, eta ez dugu parte hartuko hemendik aurrerako mantentze-prozesuan ere. Hona hemen tresna horien azalpen orokorra:

Justizia Ezagutu	Azalpen laburra
Nortzuk garen	Justizia Administrazioaren osaera, kideak...
Eraikin Judizialak	Justizia jauregien kokalekua, argazkiak, deskribapena...
Dibulgazioko materiala	Justizia Administrazioan herritarrei informazioa emateko sortu diren materialak
Helbideak eta telefonoak	Organo judizialen helbideak eta telefonoak.
Txokoa...	Erabiltzaile talde bakoitzari egokitutako informazioa: gazteak, langileak, herritarrak...
Zerbitzuak	Justizia Administrazioan dauden laguntza-zerbitzuei buruzko informazioa (Atxilotuari laguntza emateko zerbitzua...)
Zure Zerbitzura	
Erregistro Zibila	Inprimakiak on-line jaisteko aukera (jaiotza-, heriotza- eta ezkontza-ziurtagiriak) era erregistro zibilari buruzko informazioa.
Enkante Judizialak	Enkanteak noiz egingo diren, eta enkanteetan zer eskaintzen den agertzen da.
<u>Bake-Epaitegiak</u>	Bake-epaitegietak dokumentuak eta organo horiei buruzko informazioa.
Agenda	Justizia Administrazioaren inguruko gertakizunen agenda.
<u>Testu Elebidunak</u>	Bake-epaitegiak ez diren organoetako dokumentu elebidunak.

Menu horretatik, guri 8.4.1.3. atalean aipatu ditugun zerbitzuak interesatzen zaizkigu: *Bake-epaitegiak* eta *Testu Elebidunak*.


8.4.1.11. Foroak, Estekak, FAQs, Albisteak, Inkestak

Tresna hauek ere, menuan agertzen direnak bezala, Justizia Administrazioko web gune guztietan agertzen dira eta, beraz, gure pantaila guztietan ere agertuko dira. 8.4.1.10. atalean bezala, tresna horien azalpen orokorra baino ez dut egingo:

Zer	Azalpen laburra
Foroak	Justizia Administrazioan dauden berri-taldeak. Lau daude: Foro juridikoa, JustiziaNETi buruzko foroa, Internet eta Justiziaren

Estekak	ingurukoa, eta Justiziaren modernizazioaren ingurukoa.
FAQs...	Aldizkari ofizialen, erkidego autonomoen, foru aldundien eta bestelako gaien estekak daude.
Albisteak	Justizia Administrazioan herritarrek izaten dituzten zalantza nagusien azalpenak daude.
Inkestak	Justizia Administrazioari buruzko albisteak.
	Ez dira inkestak, galdera zuzen bi baino: <i>zein da gehien gustatzen zaizun eraikin judiziala?</i> eta <i>zein da gehien gustatzen zaizun [Interneten eskuragarri dagoen] gida?</i>

8.4.2 Intranet



Pantaila honetako informazioa ere, euskaraz edo gaztelaniaz ikusteko aukera dago. Interneten agertzen den informazio guztiaz gain, eskuman agertzen diren lau atal horiek agertzen dira:

8.4.2.1. Euskara ikastaroak

Atal honetako lau azpiatalen edukia, pantaila honetara sartzen den langilearen arabera izango da. Hau da, kidego bakoitzak (epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak, eta funtzionarioak) berari dagokion informazioa baino ez du ikusiko. Horren arrazoia da kidegoen euskara-ikastaroak araudi edo hitzarmen ezberdinen arabera daudela araututa. Informazioa hau aldatuz joango da, deialdi berriak heldu ahala.

Bestalde, atal honen barruan, Intranet mugatura sartzeko sarbidea egongo da. Bertatik sartuko dira sare judizialean dauden esperientzia pilotuetako kideak ([Esperientzia pilotuetara SARRERA](#)).

8.4.2.2. Hizkuntza eskakizunak

Atal hau epaileek eta funtzionarioek (agenteak, ofizialak eta laguntzaileak) baino ez dute ikusiko, fiskalek eta idazkari judizialek ez baitute aukerarik hizkuntza-eskakizunetako probetara aurkezteko. Atal honetan esteka bat egongo da, IVAPEko web orriarekin lotura egiteko.


8.4.2.3. HEZINET

Autoikaskunzari buruzko informazioa biltzen du. Atal honetako informazioa epaileek, fiskalek eta idazkari judizialek baino ez dute ikusiko, funtzionarioei (agenteak, ofizialak eta laguntzaileak) ez zaielako aukerarik ematen autoikaskuntza bidez ikasteko.

8.4.2.4. Foroak

“Euskara eta Justizia” izeneko berri-taldea sortu dugu.

8.4.3 Intranet mugatua



Orri honetara justiziako sarearen barruan dauden eta esperientzia pilotuetan parte hartzen duten langileak baino ez dira sartuko. Atal batzuk Intraneten ere agertzen dira eta azalduta daude, beraz, ez ditugu berriz ere aipatuko. Laguntza tresnen eta Hizkuntza irizpideen atalak izan ezik, gainerako atalak dinamikoak izango dira, hau da, informazioa aldatuz joango da. Intranet mugatua eta Extranet osorik euskaraz egongo diren bakarrak dira. Honako zerbitzu berri hauek egongo dira:

8.4.3.1 Azkeneko eredu normalizatuak

Sare judizialaren barruan dauden langileei, hau da, terminalen bidezko aplikazio itxien bidez lan egiten duten langileei automatikoki euskaraz eta gaztelaniaz diseinatutako dokumentu judizialak sortzeko aukera eman diegu. Oracle erabiliz garatutako aspaldiko aplikazio informatiko baten bidez sortzen dituzte zitazio zedulak, jakinarazpenak, autoak, epatzeak... Sarri askotan, oso datu gutxi sartu behar dituzte, izen abizenak eta helbideak kasu, gainerako informazioa automatikoki txertatzen baitie aplikazioak. Kasu horietan, funtzionarioek teklatuaren bidez informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz berdina denez, euskarazko eta gaztelaniazko testuetan errepikatzeak agindua eman geniezaioke aplikazioari. Horrela, dokumentu errazak, testu librerik eskatzen ez dutenak, elebitan ekoizteko aukera dago. Hemen dugu horren adibide bat:

**LEHEN AUZIALDIKO 10. EPAITEGIA
JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N° 10
BARAKALDO**

ISO / EIS: 48.02.2-96/002608
Prosedura /Procedimiento: EJ.TI.JUDI.LECN / 19/01 -
Gais/ Sobre: ..
Demandatzailea / De: RAFAEL DEGARA ERBOLLO
Prokuradorea/ Procurador/a:
Demandatua / Contra: ALEJO GALIA MUÑEZ, AVELINO ULLOA DISQUEZ y RAFAEL
ERBOLLO DEGARA
Prokuradore/ Procurador/a : ROSA ALDAY MENDIZABAL, MINISTERIO FISCAL : y

ZITAZIO-ZEDULA

Erreferentziako autoetan erabakitakoaren indarrez, idazki honen bidez zitazioa egiten zaizu x, x epaitegi honetan ager zaitezzen, x. Ez aurkesteak dakartzan ondorioz ohartarazten zaizu: x. Eta zitazioa behar bezalako forman egiteko, zedula hau idatzi eta isenpetzen dut.

BARAKALDO 2002ko Maiatzaren 2a .

CEDULA DE CITACION

En virtud de lo acordado en autos de referencia, por medio de la presente se cita a quien abajo se indica, a fin de que el día x a las x horas, comparezca ante este Juzgado con el fin de x, bajo apercibimiento de que si no lo verifica x Y para que sirva de cédula de citación en forma a quien abajo se indica, extendiendo y firmando la presente

En BARAKALDO a dos de Mayo de Dos mil dos.

IDAZKARIA / EL/LA SECRETARIO

Izen-abizenak/ nombre y apellidos: LAURA PEREZ
CADIÑANOS
Helbidea/ domicilio: CALLE GRUMETE RAMIRO VAMPIRO n° 38
BAJO - 48920 PORTUGALETE

Aplikazio horren barruan dauden dokumentu guztiak kodetuta daude, beraz guk, normalkuntzako teknikariok, elebitan dokumentu berriren bat sortzen dugunean, nahikoa dugu berorren kodea zein den jakinaraztea langileek erabiltzen hasteko.

Atal honetan, beraz, dokumentuak elebitan diseinatu ahala jarri egingo dugu ze izendapen eta ze kode duten.

8.4.3.2. Unitate didaktikoak

Dokumentuetako atal bereziren bat lantzeko didaktizatutako adibideak dira. Besteak beste, agurrak, helbideak eta oinak landuko ditugu. Arestiak aipatutako dokumentu labur eta erraz horiez gain, langileek testu librea duten dokumentuak sortu behar dituztenerako, behar izanez gero, trebakuntza saioak emango dizkiegu eta, saioetan landutakoa ere bertan txertatuko dugu.

8.4.3.3. Foroak

Foro berezitua sortu dugu esperientzia pilotuetako kideentzat, Intranet arruntean dagoenaz gain.

8.4.3.4. Maizen egindako galderak ikusi

Esperientzia pilotuetako kideek normalkuntzako teknikariei kontsultak egiteko aukera izango dute tresna honen bidez. Sarrien egiten diren galderak bertan ikusgai jarriko ditugu.

8.4.3.5. Berriak eta mezuak

Normalkuntzako teknikariek langileekin harremanetan jartzeko duten tresna da, bai galderak erantzuteko, bai zerbaiten berri emateko.


8.4.3.6. Agenda

Esperientzia pilotuetako partaideen bilerak (saio presentzialak) noiz diren agertuko da. Gainera, euskararen normalkuntzarekin eta justiziarekin zerikusia duten gertakarien berri emango dugu.

8.4.3.7. Proiektu-kideekin harremanetan jarri

Esperientzia pilotuetan parte hartzen duten organoen izena, helbidea, telefonoa eta e-posta agertuko dira, nahi izanez gero, haien artean harremanetan jartzeko.

8.4.4 Extranet



Orri honetara sare judizialean ez dauden eta esperientzia pilotuetan parte hartzen ari diren Justizia Administrazioako langileak sartzen dira, hau da, bake-epaitegietako langileak. Lehen esan bezala, gune hau euskara hutsez egongo da. Intranet mugatuaren aldean, zerbitzu berri hauek ditu:

8.4.4.1. Bake-epaitegietako aplikazioa eta dokumentuak

Lehenago esan dugu, bake-epaitegietako langileak ez daudela sare judizialaren barruan, beraz ez dute terminalen itxien bidez lan egiten. Orden ordeaz, testu prozesatzailea erabiltzen dute²¹. Horrek esan nahi du bake-epaitegi guztiek ez dituztela gaur egun dokumentu-eredu berberak erabiltzen. Dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz sortzeko, langileei lan kargarik eragin gabe, aplikazio bat sortzea pentsatu genuen. Oinarrian Access bidezko aplikazioa da, eta wordeko dokumentuak ditu konbinatuta. Hau da, datuak Acceseko formularioetan sartuta, automatikoki txertatzen dira bai euskarazko testuan eta bai gaztelaniazko testuan. Esaterako:

Hurrengo formularioan ezkontza eskaera bati buruzko datuak sartu ditugu:

²¹ Bake-epaitegi batzuetan idazteko makina zaharrekin ari dira, oraindik, lanean. Justizia Administrazioa aldaketen eta berrikuntzen aurrean nahiko uzkurra izaten da.

Aplikazioa jaisteko aukerarekin batera, berau instalatzeko eta erabiltzeko eskuliburuak jarriko ditugu sarean.

9. Hizkuntza-zerbitzuak web gunearen gaur egungo egoera


Hizkuntza-zerbitzuak web gunea 2002ko uda ingururako prest egotea nahi genuen, baina apur bat atzeratu da diseinatzeko prozesua. Uztailaren 23an jaso ditut hizkuntza-zerbitzuak web gunearen lehenengo diseinu erreala – beherago txertatu ditut–, eta orain atal bakoitzean dauden tresnak, informazioa eta estekak behar bezala ote dauden konprobatzen ari gara. Gainera, etengabe informazio gehiago eta esteka eta baliabide gehiago sartzen ari gara. Horrekin esan nahi dut behean erantsitako web guneetan aldaketak egiten jarraituko dugula.

Momentuz, herritar guztientzako pantaila baino ez dago ikusgai, hau da, lan honetan egindako banaketaren arabera, Internet izena duena. Hala ere, teknikariok kontsultatzeko baino ez dago oraindik ikusgai web gune hori. Uda osterako (urri inguruan) lau pantailak prest edukitzea espero dugu. Ondoko helbide hauetan daude ikusgai euskarazko eta gaztelaniazko guneak (helbide hauek ez dira inon agertzen, zuzenean teklatutara baino ezin da bertara sartu):

<http://www.justizia.net/normalizacion/default.asp?Idioma=eu>

<http://www.justizia.net/Normalizacion/>

Itxura hau du momentu honetan ikusgai dagoen Internet:



Ikus daitekeenez, akats asko ditu:

- laguntza tresna batzuk falta dira.
- estekak falta dira, eta daudenen artean, batzuek ez dute funtzionatzen.
- ortografia-akatsak daude.
- euskarazko web gunean gaztelaniazko atal bat txertatuta dago (hizkuntza irizpideak).
- ...

Apurka-apurka joango gara akatsok zuzentzen eta gainerako pantailak prest edukitzen.